

Txama Integrazio Topagunea

TXAMA
Integrazio topagunea



BEZEROAREKIKO HARREMANAK

Bezeroak eta herriko boluntarioak, sare-sozial bidez, udal propagandaren bitartez eta potentzialki integrazio beharrean egon daitezkeen pertsonak biltzen diren eremuetan edo zerbitzuetan erakarriko ditugu (esaterako Cáritas, herriko elikagai bankua edo errefuxiatuentzat ematen den zerbitzuan). Gazteen kasuan, eskolaz eskola boluntarioen bilaketa aurrera eraman daiteke.

Bezeroarekiko harremana zuzenekoa izango da, hau da, bezeroa eta hezitzailea edo herriko boluntarioak, zuzenean topagunean arituko dira, eta beraien arteko harremana berdintasunean eta integrazioan oinarrituko da. Gaur egungo egoera dela eta, harremana online bidez ere izateko aukera egongo da, meet bidezko bideo-deiekin eta e-mail bidez.

Bezeroa gure proposamenari lotuta mantentzeko, topaguneko pertsonen (boluntario eta bezeroen) erregistroa gordeko dugu, beraien kontaktua eskura edukitzeko. Horrela, topagunea antolatzen den egunean norbait falta bada, zuzenean berarekin harremanetan jarri ahalko gara.

Bezeroa gure negozio-ereduan integratuko dugu, boluntario, hezitzaile eta bezeroen artean ekintza ugari eginez.